

Biberoia

Biberoientzako esne egokitua eraldatutako behi-esnearekin egiten da amaren esnearen antzekoa izateko.

Haurrak urte bete izan arte amaren esnea edo egokituriko esnea soilik har dezake.

- 6. hilabetera arte **hasierako** esnea (I mota).
- 6. hilabetetik aurrera **jarraipeneko**a (II mota).

Beharrezko materiala

- Garbiketa errazteko aho zabaleko eta ur-maila markak dituzten 2 edo 3 biberoi.
- Esnea tantaz tanta irteteko zulo egokidun tetinak.
- Biberoiak irakiteko estalkidun lapiko handia.
- Biberoiak garbitzeko eskuila.

Biberoia prestatzea

1. Oso garrantzitsua da biberioia prestatu baino lehen **eskuak** ur eta xaboiarekin **ondo garbitzea**.
2. **Beti lehenengo ura eta gero esne-hautsak ipini itzazu.** Botilako edo iturriko ura erabil dezakezu. Zalantzarik izatekotan ura minutu batez irakin. Bete biberioia urez, marka begien parean duzula.
3. 30 ml ur bakoitzeko, arrasean (justu-justu) betetako esne-hauts ontzitxo bat gehitu.

Ura	Ontzitxoak
30 ml	1
60 ml	2
90 ml	3
120 ml	4
150 ml	5
180 ml	6
210 ml	7
240 ml	8

Autoreak: Susana Agruñá y Montse Torres
Berrikuspen zientifikoa: Olga Rodrigo
Batzorde editoriala: Lurdes Alonso; Vocalía de Comunicación

4. Nahastea emeki astindu.
5. Esne-ontzia ondo itxita, leku fresko eta lehorrean gorde.
6. Prestaturiko esnea hozkailuan gorde daiteke 24 orduz. Ez gorde esne-berogailuan ezta termoan ere.
7. Mikrouhinen labean edo Maria bainuan berotu daiteke.

Biberoi-ematea:

- Biberioia eman baino lehen, eskugainera esne-tanta batzuk bota temperatura egiaztatzeko.
- Biberioia emateko jarrera egokia, umea altzoan eta apur bat altxatuta izatea da. Inoiz ez eman etzanda edo guztiz eserita dagoela.
- Ematen diozun bitartean, tetina beti esnez beteta egon behar da haurrak airea irentsi ez dezan.
- Soberako esnea bota egin behar da.



Biberoi garbiketa

- Eskuila erabiliz ur eta xaboiarekin garbitu behar da. Tetinak alderantziz ipini eta eskuilarekin igurtzi behar dira.
- Ondoren biberoiak eta tetinak desinfektatu behar dira. Tetinak eta biberoiak buruz behera, hiru hatz ur dituen lapikoan, 2-3 minutuz irakiten ipini. Tetinek gehiago iraun dezaten, sareta batean egon daitezke.
- Gorde biberoiak tetinak barruan eta buruz behera dituztela.

